



PARTE HARTZEKO SUKALDARITZA ERRAZA

Erakunde sozialetako pertsonen
parte-hartzea sustatzea

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin
Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi
European anti poverty network
in the Basque Country



Egileak: **Elena de la Hera Rodriguez eta EAPN Euskadi**

Edizioa: **EAPN Euskadi**

Diseinua eta maketazioa: **Labox Marketing y Comunicación**

Ilustrazioak: **Ania Sáenz de Buruaga**

Lan hau **Creative Commons** lizentziapean dago:



CC BY-NC-SA (Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin)

Lizentzia honek beste batzuei bide ematen die haren obran oinarri hartuz nahasi, egokitu eta eraikitzeko, helburuez-komertzialetarako, betiere egiletza aitortuta eta sortzen diren lan berriak baldintza bereko lizentzia baten pean jarrita.

Finantzatzaileak:





PARTE HARTZEKO SUKALDARITZA ERRAZA

Erakunde sozialetako pertsonen parte-hartzea sustatzea

ERAKUNDEAREN AURKEZPENA

European Anti Poverty Network – EAPN (Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borrokaren Europako Sarea) GKEen eta Europar Batasuneko estatu-kideetan pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan sartuta dauden beste erakundeen koalizio independentea da. Koalizioa 1990eko abenduan sortu zuten Europar Batasunaren barruan pobrezia- eta bazterkeria-egoeran zeuden pertsonekin lan egiten zuten erakundeek, eta Europako Batzordeak kontsultatzen duen organoa bihurtu da. Halaber, EAPN Gizarte Ekintzarako Europako Plataformaren bazkide fundatzailea da.

Espanian, Pobreziaren eta Gizarte Bazterkeriaren aurkako Borroka Sarea (EAPN-ES) 1991ean jaio zen eta 2004an birfundatu zuten pobrezia eta gizarte-bazterkeria pairatzen duten pertsonen gizarteratzearekin konpromisoa zuten GKE-en sare gisa. Egun, 19 sare autonomikok eta estatuko 20 erakundek osatzen dute, guztiak irabazi-asmorik gabeak dira eta osagai komuna dute: pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka egitea.

EAPN Euskadi 1997an sortu zen ofizialki (hasieran EAPN Bizkaia izan zen eta 200tik aurrera EAPN Euskadi), pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako borrokan jarduten duten Hirugarren Sektoreko erakundeak batzeko. Egun, 39 erakunde daude EAPN Euskadin.

“*Parte-hartzea posible dela
sinesten duten eta beti sinetsi
duten profesional guztiei.*”

SARRERA

2005ean, EAPN Euskadi sareko hainbat erakundek zerbitzu eta erakunde sozialetan parte hartzen zuten eta zaurgarritasun-, pobrezia- eta bazterkeria-egoeran zeuden pertsonen parte-hartzea sustatzen zuten sareko hainbat erakundek sortu zuten lan-eremua dinamizatzen hasi zen. Hala sortu zen EAPN Euskadi parte-hartze sarea, bi helburu nagusirekin, eta helburu horiek lantzen jarraitzen dugu:

- › *Taldearen parte diren baliabide kolektiboak eskaintzea (tresnak, espazioak, etab.), pertsonen parte-hartzea sustatzeko.*
- › *Erakundeak inplikatzeko, pertsonen parte hartzerako barne-prozesuen aldeko apustu orokorra egin dezaten.*

Errezeta-liburu hau Parte Hartze Taldeak urte hauetan zehar egin duen lanaren emaitza da, eta erakundeek pertsonen parte-hartze prozesuak abiarazteko motibatu eta laguntzea du xede zehatza. Lan egin dugun pertsonen haien ahotsa eta iritzia dutenez, parte hartzeko modu horiek proposatu eta egoitzea dagokigu, eta erabili nahi dituzten ala ez erabakitzen dutenak haiek izatea.

Hau ez da besteen moduko parte-hartze gida, errezeta-liburua da, eta parte hartzeko prozesu horiek su motelean prestatu nahi ditu, jaki on guztien modura.

Espero dugu lanari ekin nahi dioten erakunde guztientzat erabilgarria izatea.

Zure parte hartzezko sukaldaritzarako oinarrizko osagai eta tresnak

1



Zure biltegian osagai eta tresna hauek badituzu,
beti izango duzu zure jendea parte hartzera
animatzeko aitzakia.

TRESNAK

OINARRIZKO KONTZEPTU BATZUK

Oinarrizko kontzeptu batzuk eskura izan behar dira beti parte-hartzearen inguruko gogoeta oro hasteko¹.

Parte-hartzea, zer da guretzat?

“Erakunde sozialek parte-hartzea ulertzeko duten moduaren baitan egongo dira parte-hartzea sustatzeko abian jartzen diren edo jartzen ez diren prozesuak”. Parte-hartzea zer den zehazteko gogoeta egitea EZINBESTEKOA da pertsonen parte hartzeko prozesua abian jartzen dugunean gure erakundeko zer elementu berrikusi eta kontuan izan behar ditugun ulertzeko.

Parte-hartzea, hiztegiaren arabera.

Pertsona bati dagokionez: Zerbaitetan parte hartzea, zerbaiten zati bat jasotzea, gizartearen parte izatea, partekatzea, beste pertsona baten iritzi berdina izatea, ideiak, etab.

Parte-hartzearen hiru elementu nagusi: PARTE IZAN, PARTAIDE IZAN, PARTE HARTU.

Parte hartzeko moduak

Parte-hartzea beste pertsona batzuekin batera “parte hartu” eta “eraldatu” zentzuetatik hartzen badugu kontuan, parte-hartzea hainbat modutara adieraz daitekeen harreman sozial gisa definituko da:

Herritarren parte-hartzea

Lurralde jakin bateko erabaki sozial eta politikoetan parte hartzea esan nahi du.

Parte-hartze komunitarioa

Herritarrek modu antolatuan presioa egin eta esparru zehatz batean (komunitatea) erabakien kontrola partekatzen duten prozesua da.

¹ EAPN ESPAINIAK 2010ean egin zuen “Pobrezian eta gizarte-bazterkeria egoeran dauden pertsonen Parte Hartze Sozialerako gida metodologikoa” erreferentziatzat hartuta. Edozein kontzepturen inguruko informazio gehiago nahi izanez gero:

ISBN:978-84-613-5612-6

Webgunearen erreferentzia: <https://www.eapn.es/publicaciones/31/guia-metodologica-de-participacion-social-de-las-personas-en-situacion-de-pobreza-y-exclusion-social> .(Doan deskarga daiteke)

Parte-hartze soziala

Banakakoa edo kolektiboa, arlo sozial eta komunitarioetan eragiten du. Horretarako motibazioa, gaitasuna eta aukerak areagotu behar dira, pertsonek gai sozialetan modu kolektiboan esku har dezaten. Antolaketa edo lurralde eremu guztietako erabaki sozialetan hartzen dute parte.

Parte-hartze politikoa

Gobernuan dauden agintarien hautaketan eta jardueran eragiteko, agenda politikoetan gaiak sartzeko edo erabaki politikoetan eragina izango duen hori aldatzeko (kultura, balioak) herritarren ekintza zuzenak dira.

PARTE-HARTZEAZ JARDUTEN DUGUNEAN BERRIKUSI BEHARREKO BESTE KONTZEPTU GARRANTZITSU BATZUK

Elkarbizitza

Harremanak izatea, moduren batera interakzioa izatea (aktiboa edo pasiboa), eztabaidatzea, kudeatzea, gatazkak konpontzea eta abar dakar. "Gutaz" hitz egiteko espazioak eraikitzea.

Herritartasuna eta herritartasuna eraikitzea

komunitate eta gizarte bidezkoagoak, parekideagoak eta inklusiboagoak eraikitzeko bidea zehazten du.

Gizarteratzea

Pertsona guztiek haien ingurune ekonomiko, sozial eta politikoan erabat parte hartzeko aukerak eta baliabideak dituztela bermatzen duen prozesua da, bizitza duina izateko baldintzak izateko.

Boluntarioritza eta militantzia

Boluntarioritza izan da modu aktiboan, solidarioan eta altruistan (...) esku hartzea beharrezkoa iruditu zaien pertsonen parte hartzeko modu tradizionala².

Militantzia kausa baten defentsan ahaleginak egiten dituen pertsonaren portaera edo jarrera da, alderdi politiko batetik, gobernu kanpoko erakunde batetik edo baita norbanako modura ere garatu daiteke.




² Espainiako Boluntarioen Plataformaren definizioaren arabera.

OSAGAIAK

1. osagaia

PARTE-HARTZEA PROZESU GISA



Erakundeen barruan parte-hartzea ezarritako amaierako helburua lortzeko prozesu edo bitarteko gisa uler daiteke. Bi alderdiak dira balizkoak, beti ere bakoitzak zer esan nahi duen eta zer muga dituen argi badugu.

› Parte-hartzea bitarteko gisa (zerbait lortzeko)

Askotan, erabiltzaileen parte-hartzea eta parte-hartzearen inguruan dagoen ezagutza jarduera jakin batzuetan erabiltzen diren tekniketara mugatzen da (iritzia edo balorazioa eskatzen duten jardueretara), baina ez dira galdeketetatik, balorazioetatik edo alderdi jakin batzuen inguruko iritzia adieraztetik harago joaten. Ondo antolatuz gero, emaitza oso positiboak dituzte; baina kasu gehienetan ez da erakundearen gainerako arloetara heltzen ez eta estrategiko bihurtzen ere (erakunde osoaren barruan gogoeta egin, pentsatu eta azken helburuarekin onartzea).

› Parte-hartzea prozesu modura

Urrats bat aurrerago doa; izan ere, "pertsonei egiten die erreferentzia, bitartekoak, berriz, gauzei". Gauzak jarduerak, protokoloak, prozedurak, programak eta abar dira³. Tresna izatearen ikuspegia albo batera uzten da, ez da lankidetzan aritzea, baizik eta PARTE IZATEA, eta zerbaiten parte izateko prozesu orok dakar elkarren artean komunikatu ahal izatea, askotan erakundeetan edo esku hartze sozialeko prozesuan bertan inkontzienteki ezarri ohi ditugun barrerak eta hierarkiak apurtuz. Zerbitzu eta erakunde bakoitzean pertsonen parte-hartzeari dagokionez egiten ari garenaren inguruko kontzientzia hartzea dakar, eta, are garrantzitsua goa, zergatik egiten ari garenaren ingurukoa.

³ EAPN ES (2010). Pobrezia eta gizarte-bazterkeria dauden pertsonen parte-hartze sozialaren gida metodologikoa. Madril.

2. osagaia

PARTE-HARTZEAREN ESKAILERA

EAPN Esek "Sortu, jolastu eta parte hartu. Erreminten kutxa". Izenpean sortu duen Erreminten Kutxaren barruan dagoen EAPNren Kontzeptuen Koadernotik aterata. Bertan, parte-hartzea eskailera moduan definitzen da. Eskailera horretan, maila bakoitza parte-hartze maila bat da, eta inplikazio maila desberdinak ditu.⁴Hauek dira mailak:

Esan daiteke inplikaturik dauden pertsonak ez dutela benetan parte hartzen.

3. MAILA

Parte-hartze sinbolikoa. Herritarren parte hartzea itxurazkoa soilik den ekintzetan ikus daiteke.

2. MAILA

Parte-hartze dekoratiboa. Herritarrak apaingarri gisa sartzen dira, hau da, jarduera jakin bat "apaindu" edo "animatzeko". Halaber, argitalpen edo ekintza jakin batzuetan helburu dekoratiboetarako edo "folklorikoetarako" soilik sartzen bada.

1. MAILA

Manipulatutako parte-hartzea. (...) Herritarrak ulertzen ez dituzten eta haien intereseak ez diren ekintzak egiteko erabiltzen dira.

4. MAILA

Izendatuta baina informatuta dauden parte-hartzea Maila honetan herritarrek jarduera jakin batean hartzen dute parte, baina jakinaren gainean daude ekintza horrek zertan datzan. Mugatua izan arren, benetako parte-hartzearen lehenengo maila da.

⁴ Proposamena Sherry Arteinak 1969an idatzi zuen "A Ladder of Citizen Participation" artikulurako egindako proposamenetik abiatu da.



8. MAILA

Herritarrek beraiek pentsatutako eta garapenerako kanpo-eragileekin partekatutako ekintzetan hartzen dute parte. Ekintza herritarrek pentsatzen dute, baina aurreko mailan ez bezala, kanpoko eragileekin partekatzen dute. Parte-hartzearen eskailerako mailarik altuena da.

7. MAILA

Herritarrek beraiek pentsatu eta gauzatutako ekintzetan parte hartzea. Ekintza herritarrek beraiek garatzen dute eta haiekin batera gauzatzen da. Ez dago harremanik kanpoko eragileekin. Zalantzarik gabe, pertsonak dira ekintzaren protagonistak. Hala ere, ez dute kanpoko eragileen esperientzia edo trebetasun teknikoaren ekarpenik.

6. MAILA


Kanpoko eragileek herritarrek partekatzen dituzten garapenerako ideietan parte hartzea. Ekintza kanpoko eragileek pentsatzen dute, baina herritarrekin partekatzen dute. Haiek egin beharreko ekintzaren inguruan pentsatu eta ekarpenak egiteko hartzen dute parte.

5. MAILA

Informazioarekin eta kontsultarekin parte-hartzea. Benetako parte-hartzearen bigarren maila da. Kanpoko eragileek herritarrei jakinarazi eta kontsultatzen diete balizko parte-hartzearen inguruan. Horren arabera erabaki dezakete herritarrek.

3. osagaia

EZ AHAZTU ERAKUNDEAREN/ ZERBITZUAREN AZKEN XEDEA




Kasu guztietan azken maila horietara heltzea izan beharko litzateke gure helburua? Zalantzarik gabe, parte-hartzerik onena herritarrengandik abiatzen dena da, baiian kontuan izan behar dugu gure eguneroko jardunean, haien egoera zehatza dela eta, azken maila horietara heldu ezin diren kolektiboekin egiten dugula lan, eta, halaber, ez dugu ahaztu behar erakunde edo zerbitzu bakoitzaren helburu zehatza. Beraz, **gure xedea ez da azkeneko mailara heltzea, parte-hartzearen maila idealera, erakunde sozial gisa kasu bakoitzean dagokigun tokian kokatzea bai-**

zik, koherentziarekin; betiere parte hartzeko maila errealetan eta pertsonak manipulatu gabe (kasu bakoitzean dauden mugak eta abantailak kontuan izanik eta parte hartzen duten pertsona guztiak kontziente direla bermatuz).

4. osagaia

ESPAZIOAK BEREIZTEAK ETA ERABILTZAILEAK EZ NAHASTEAK DUTEN GARRANTZIA

Oso zaila da ezarritako rolekin haustea eta mesfidantza handiak sor ditzake profesionalen edo zuzendaritza-taldeen aldetik. Hortaz, beharrezkoa da parte-hartze prozesuak enpresan eragin ditzakeen balizko aldaketak mahai gainean jartzea, bai eta beldurrak eta mesfidantzak enpresa barruan modu gardenean eta adostuan jorratzea ere.






5. osagaia

ERAKUNDEKO/ ELKARTEKO ERABAKI- ORGANOEN ZEREGINA

Erakunde sozialen barruan parte-hartzea sustatzeko prozesuei ekitea erakundearen barruan eta esku hartzen duten erabaki-organoen barruan hasten diren gogoeten emaitza izan daiteke. Erakundeak erronka modura hartu behar du bere gain pertsonen parte-hartze prozesuaren hasiera, eta erakundearen ildo estrategikoa bihurtu behar du.

6. osagaia

ERAKUNDEAREN BARRUAN ETA KANPOAN BEHARREZKOAK DIREN BABESAK



Prozesua, oro har, pertsona edo talde jakin bati esleituko zaio. Prozesuan pertsona horiei laguntzeko beharrezko babesak daudela bermatu beharko da: prestakuntza, lanaldiaren barruan eskaini ahal izateko denbora jakin batzuk, eguneroko lanaren lan gehigarria izan ez dadin, eta motibazioa galdu ez dezan; denbora zehatzak taldeko bileretan, zuzendaritzakoetan, batzordeetan, etab. Arduradunek aukera izan behar dute prozesuaren kontuak emateko, eta jarraitu ahal izateko behar dituzten arazo zehatzak edo laguntzak zehazteko (egiten ari diren prozesuari eta lanari baliola ematea). Gainera, gure proposamena da


arduradunek lan-taldeetan, foroetan eta abarretan parte hartzea, parte-hartze prozesuak lantzen ari diren erakundeko beste pertsona batzuekin batera, esperientziak, zalantzak eta ziurgabetasunak partekatu eta elkar babesteko.



7. osagaia

BEHARREZKO BABES EKONOMIKOAK

Halako parte-hartze prozesuari ekiteko abiatzen den erabaki-prozesuan, oso kontuan izan behar da abian jarri eta gauzatzerakoan izango den aurrekontua. Prozesuak denbora behar du, pertsonen dedikazioa, eta kostu ekonomikoak dituzten materialak. Erakundeak prest egon behar du kostu horiei aurre egiteko.




8. osagaia

MOTIBAZIO ESKUKADA BAT


Noski hau ezinbesteko osagaia izango da edozein gogoeta egiten hasi AURRETIK, eta, noski, erakundearen edozein parte-hartze prozesu mota abian jartzeko.

Mary Poppinsek zioen moduan:
“Azukre pixka batekin, ematen dizueten pilula horrekin, hobeto pasatuko da”.
Eta azukre hori izango da gure motibazioa, gure lana dibertsio bihur dadin.



| Platerak

2




1. PLATERA

AURRETIK EGIN BEHARREKOAK: NORAINO HELDUKO GARA?

Hartu beharreko lehenengo erabakia da. Puntu honetan presente eta inplikatura egon behar dute erakundearen zuzendaritza-organoek.

Oinarrizko osagaiak



- Parte-hartzearen kontzeptu gako guztiak.
- 1 kg Parte-hartzea PROZESU gisa.
- 1 kg Parte-hartzearen eskailera.
- 1 litro Ez ahaztu erakundearen azken xedea.
- Motibazio eskukada bat.

Prestaketa

1. Parte-hartzearen kontzeptu gako guztiak eta parte-hartzearen eskailera hartu eta gogoeta prozesua abiarazi erakundearen barruan, hainbat gairen inguruko erabakiak hartzen hasteko:
 - a. Erabiltzaileek erakundearen parte hartzea nahi dugu? Erakunderen zer eremutan? Denbora-zen zer etorkizun jakinetan eta zer mugatara helduko gara?
 - b. Zer aldaketa ekar ditzake erakundearen eta zerbitzuen barruan eta kanpoan? Egiturazko aldaketak edo ideologikoak ekarriko ditu? Aurre egin nahi diegu? Zeini bai eta zeini ez?
 - c. Nork egingo du? Nola egingo du?
2. Heldu nahi dugun MAILAREN erabakia hartzea eta erabakiaz kontziente izatea, koherentziarekin, eskaintzen diren zerbitzuen azken xedearekin.
3. Aurrekontua egitea.
4. Ekarriko dituen aldaketak planifikatzea.
5. Guztiari motibazio asko eranstea.

Platera hobetzeko gomendioak:


- › Prozesua gardena izatea. Guztien iritzia izatea.
- › Beste erakunde batzuen esperimentuak ezagutzea.

2. PLATERA

BELDURRAK ETA MESFIDANTZAK AZTERTZEA TALDEEN GARRANTZIA

Beldurrei aurre egiteko ezagutu egin behar dira. Errezeta hau proposatzen dizugu profesionalek erabiltzaileen parte-hartze prozesua hastean izan ditzaketen beldurrak eta mesfidantzak landu ahal izateko.

Oinarrizko osagaiak



- Kontzeptu Gakoen 2 koilarakada.
- 1 litro Ez ahaztu erakundearen/zerbitzuaren azken xedea.
- ½ kg espazioak bereizi eta erabiltzaileak ez nahastu.
- Motibazio eskukada handi bat.

Prestaketa

1. Egin salda on bat kontzeptu gakoen bi koilarakadekin eta Ez ahaztu erakundearen/zerbitzuaren azken xede litroarekin, eta eraman ezazu talde-bileretara, profesionalek erabiltzaileen parte-hartzearekin izan ditzaketen zailtasunak mahai gainean jartzeko eremua (eta denbora jakin bat) sortzea proposatzeko.
2. Bileren artean, landu adierazitako zailtasun bakoitzari aurre egiteko proposamen zehatzak. Izan zuzendaritzako organoen laguntza horretarako. Sartu proposamenak hurrengo bilerako gai-zerrendan eta egosi salda guztia lasaitasunez. Jarduera erraz eta laburrak proposatu hurrengo bileretarako.
3. Bilera bakoitzeko ondorioekin, egin erabiltzaileentzako parte hartze eremuen proposamena, eta bota gainetik eremuak bereizteko ½ kg, erabiltzaileak ez nahaste-ko. Itxaron proposamena aurkezteko une egokia heldu arte. Taldea hurrengo bileretan ondo erantzuten ari dela ikustean izango da unea.
4. Bota motibazio-tanta txikiak prozesu osoan zehar.

Platera hobetzeko gomendioak:


- › Prestatu prozesu osoa lasaitasunez. Beldur eta zailtasun guztiak dira zilegi, helburua laguntzak bilatu eta taldeek onurak ikusi eta aldaketarako proposamenak egitea da. Parte-hartzea guztion artean prestatzen dugu.

3. PLATERA

UNEAN ZER EGINGO DUGUN ETA PARTE HARTZEA ZER DEN AZTERTU

Erakundeetan hainbat modura hartzen dugu kontuan erabiltzaileen iritzia, baina gehienetan “parte-hartzea” esaten diogu. Garrantzitsua da kontzeptuak ezagutzea, geureak eraikitzea eta horrekin gure eguneroko jardura parte-hartzearen ikuspegitik aztertzea.

Oinarrizko osagaiak



- Arrakasta lortzeko errezetaren oinarria: taldeetan oinarritzea.
- Kontzeptu gako bakoitzaren 4 koilarakada bete.
- 1. Plateretik eta 2. Plateretik ateratako ikasketa guztiak.
- Denboraz beteriko kukurutxoak.
- Motibazio txorota bat.

Prestaketa

1. 2. Plateraren bitartez parte-hartzearen gaia taldeko bileretan lantzea lortu dugu, eta horretarako denbora jakin bat izatea. Beldurak eta mesfidantzak aztertu ondoren, horiei aurre egitea lortu ez arren, hori egiteko modu onargarria aurkitu badugu, 3. Platerarekin has gaitzke.
2. Bilatu egiten ari garena erregistratzeko modua. Koadro bat egin dezakezu eta betetzen joan⁵: iritzia nola jasotzen dugun eta pertsonen beharrak zein diren, noiz egiten dugun, bai eta teknika eta/edo eremu horitako bakoitzaren inguruan parte-hartzearen ikuspegitik taldeak egingadako azterketa ere. Erabili denboraren kukurutxoak!
3. Landu taldeko bileretan eta bota iezaiozu motibazio txorota bat. Garrantzitsua da kasu bakoitzean zailtasunak eta alderdi positiboak edo arrakastatsuak aipatzea.
4. Aurkeztu emaitza zuzendaritzako organoei.

Platera hobetzeko gomendioak:

- › Platerak bere denbora behar du. EZ izan presarik eta prestatu maitasunez, talde osoarekin eta poliki eta etengabe eraginez.


5 EAPN Euskadik 2010ean argitaratu zuen “pertsonen parte-hartzea gizarteratzerako tresna. Erakunde sozialetan parte-hartzea sustatzeko esperientzia pilotuak” lanean erabiltzaileen beharrak eta parte-hartze mailak jasotzeko tresna zehatza aurki dezakezu (15. orritik 21.era). Dokumentua deskargatzeko: <https://www.eapneuskadi.org/include/uploads/nodo/Participacion-como-herramienta.pdf>

4. PLATERA

BILATU NOLA HOBETU DAITEKEEN PLATERA

Hau da aurreko plateren soberakinekin egiten dugun ohiko platera, baina gozonenetako bat da, aurreko plateretatik lortutako emaitzekin hobetzeko arloak bilatuko ditugulako eta gure parte-hartze platera dasta dezakegun onena egingo dutelako.

Oinarrizko osagaiak



- 3. Platereko emaitzak.
- Erakunde barruko eta kanpoko laguntzen katilu handi bat.
- Baliabide ekonomikoen txirbilak.
- Ilusioz eta motibazioz beteriko saltsa.

Prestaketa

1. 3. Platereko lan guztia sistematizatuta izan ondoren, argi izango dugu parte-hartzeari dago-kionez zerbitzuan/erakundearen zer egiten dugun. Ziur harritzen zaituela, espero zenuen baino gehiago baita. Baina plater guztiak hobetu daitezke...
2. Bilatu laguntza taldean. Garrantzitsua da pertsona guztiek urratsa modu bateratuan ematea: hartu emaitza guztiak eta bilatu taldean ikusten dituzun hobetzeko arloak. Ezarri kasu bakoitzerako hobetzeko arloak, adierazleekin eta denborekin.
3. Bilatu alderaketa erakundetik kanpo. Kanpoko laguntza-talde horrek aurretiazko beste esperientzia batzuen berri eman ahal izango dizu edo kanpotik duen iritzia eman.
4. Orain erabili baliabide ekonomikoen txirbilak. Garrantzitsua da proposamen zehatzak aurkeztu aurretik balizko gastuak aurreikustea. Egin daiteke? Aurrera, aurkeztu zure proposamena aurrekontuarekin zuzendaritzako organoei.
5. Ez ahaztu prozesu osoan zehar ilusioz eta motibazioz beteriko saltsarekin bustitzen joatea.

Platera hobetzeko gomendioak:


- › Erakundearen barruko eta kanpoko laguntzak oso garrantzitsuak dira parte-hartzea aztertze prozesu honetan. Kontuan izan hobekuntzari ekingo diozula eta erakundearen barruko eta kanpoko pertsonekin alderatzeak aukera guztiak aztertzea eta adostutako erabakiak hartzea ahalbidetuko dizu. Gogoan izan parte-hartzea guztion artean egiten dugula.

5. PLATERA

ETA MAHAIKIDEEN IRITZIA?

Orain arte erakundearen profesionalekin batera aritu zara sukaldean (gobernuko organoak, lantaldeak), baina zer iritzi dute erakundearen zerbitzu horiek jasotzen dituzten pertsonak? Erabiltzaileen iritzia kontuan hartzeko unea da, erakundearen barruan haien parte-hartzea sustatu nahi baitugu.

Oinarrizko osagaiak



- Kontzeptu gako bakoitzaren koilarakada bat.
- 1. platereko emaitza: Noraino helduko gara parte-hartze prozesuan?
- 1 koilarakada bete Ez ahaztu erakundearen/zerbitzuaren azken xedea.
- 2 koilarakada Espazioak bereizi eta erabiltzaileak ez nahastu.
- Motibazio pitin bat.
- Pazientzia asko.

Prestaketa

1. Bota kontzeptuen koilarakada guztiak bol batean eta planifikatu erabiltzaileentzako saio bat, parte-hartzearen definizioa elkarren artean eraikitzeko, orokorrean eta zerbitzu/erakundearen, erabiltzaileek erakundearen barruan eta kanpoan dituzten pertzepzio eta esperientzietatik. Garrantzitsua da kontzeptuak eta parte-hartzeko prozesuan noraino helduko garen argi izatea.
2. Pertsonak haien iritzia eta beharrak ezagutzeko duzuen moduren inguruan iritzia eman ahal izateko espazioa sortzea. Taldean eraiki duzuen koadro hori... Ikusiko dugu ea zer iritzi duten erabiltzaileek teknika eta/edo eremu horien inguruan. Dinamika berriak erabili, ahalbidetu pertsona guztiei beraien iritzia ematea, eta beste eremu batzuetan erosoago sentitzen diren pertsonak badaude, sor itzazu⁶.
3. Oso garrantzitsua da orain: Espazio horren sorrera eremuak bereizi eta pertsonak ez nahasteko koilarakadekin nahastu behar da, eta motibazio apur bat eta pazientzia handia bota gainetik.
4. Idatzi emaitza eta gehitu 3. eta 4. plateren emaitzei. Berrikusi hobetzeko arloak eta IZAN KONTUAN mahaikideen iritzia aurkeztu eta ezarri beharreko proposamena amaitzerakoan.

Platera hobetzeko gomendioak:

- › Badirudi berriro gelditu eta aztertzen dugunean atzerapausoak ematen ditugula, baina ez da horrela... Gogoratu parte-hartzea PROZESU bat dela eta, beraz, ez dagoela gaizki atzera egitea, berriro zalantzan jartzea eta ikasitako ikasketak finkatzea. Oraingoan, erabiltzaileen ikuspegitik.
- › Zaindu ondo taldeko pertsonak, baliteke momentu batzuetan zalantzan jartzea eta atzera egin dezakegu, konponduta zeudela ueste genuen zailtasunetara. Gogoan izan edozein unetan egin dezakegula atzera eta hobeto aterako zaigun beste errezeta bat hartu.



⁶ Talde-dinamiken argitalpen asko daude lagungarriak izan daitezkeenak. Adibide gisa, Parte Hartzeko Erreminta Kutxaren esteka utziko dizugu. EAPN Esek egin du CEPAIM Fundazioaren lankidetzarekin eta SORTU, JOLASTU ETA PARTE HARTU du izena: <https://www.participacionsocial.org/cajaHerramientas/>

6. PLATERA

GOGORATU IKASTEN ZOAZEN GUZTIA... IDATZI EZAZU!

Prozesu osoa idatzi behar da, hartu diren erabakiak eta zergatia... Adostasun-prozesua egin behar da, erakundean parte-hartze prozesuak finkatu eta pixkanaka erakundearen barruan finkatuta eta adostuta dagoen errealitatea izan dadin lortu. Hori izango da ildo estrategikoa lortzeko lehenengo urratsa, erakundearen eta zerbitzuen berezko azken xedea kontuan hartuz.

Oinarrizko osagaiak



- Aurreko errezeten ikasketa guztiak.
- 1kg Erakunde barruko eta kanpoko laguntza.
- 2kg Erakundearen erabaki-organoen laguntza.
- 3 koilarakada bete laguntza ekonomiko.
- Denboraren eta pazientziaren txirbilak.

Prestaketa

1. Hartu aurreko errezetatik lortutako ikasketa guztiak eta eskaini denbora eta ahalegina prozesu osoa idazteari. Ikus-entzunezko formatuan ere egin dezakezu. Aukeratu zure erakundeari ondoen doakiona.
2. Alderatu bildutako guztia erakundeko taldeekin eta erabaki-organoekin. Hartzen diren erabakien arabera, ondo etor daiteke kanpoko alderaketaren bat egitea.
3. Idatzi eta onartu ondoren, erabakitzeko organoek erakundearen plan estrategikoan sartzea erabaki behar dute.
4. Bota denboraren eta pazientziaren txirbilak errezetari. Hobetu emaitza.

Platera hobetzeko gomendioak

- › Errezeta honetan garrantzitsua da erabakitzeko organoak prozesuarekin ados egotea. Hori izango da pertsonen parte-hartzea erakundearen estrategia bihurtzeko lehenengo urratsa.
- › Aurkeztu ildo estrategikoak erabiltzaileei. Ondo azalduta eta landuz gero erabiltzaileekin egingo dako lana, gizarteratze-prozesuarentarako tresna egokia izan daiteke haien iritziak erakundearen ildo estrategikoan islatuta daudela ikustea.

7. PLATERA

AZTERTU INGURUA: EZAGUTU BESTEAK ETA EZAGUTU ZAITZATELA

Aurreko errezetetan, etxeko platerak aurkeztu ditugu gure erakundeetako pertsonentzat. Inguruneak aukera-sorta zabala eskaintzen digu, eta erakunde eta zerbitzuetako barneko parte-hartze prozesuentzat ere onuragarria izan daiteke. Sukaldean prestatutakoarekin gure ingurunea harrituta utziko dugu.

Oinarrizko osagaiak



- Parte-hartzearen kontzeptu gako guztiak.
- 1 kg Parte-hartzea PROZESU gisa.
- 1 kg Parte-hartzearen eskailera.
- 1 litro Ez ahaztu erakundearen azken xedea.
- Erakundeko/elkarteko erabaki-organoen zeregina.
- Motibazio handia.


Prestaketa

1. Nahastu osagai guztiak lapiko handi batean eta hasi nahastu. Aurreko errezetak egin badituzu, urrats hau pasa dezakezu, baina ez ahaztu ikasitakoa!!!
2. Ezagutu erakunde sozialaren ingurua. Gaitasunak aprobetxatzeko, galdera hauek egin ditzakegu: Nola erlazionatzen gara ingurunearekin? Ezagutzen gaituzte? Zer zentzutan ezagutzen gaituzte? Ezagutzen dugu? Ingurunearekin koordinatzen gara?
3. Garrantzia eman behar diogu erakundearen inguruari eta erabiltzaileen inguruari. Badakigu pertsonak nola hartzen duten parte haien hurbileko inguruetan (familian, auzoan...)? Erakundearekin berarekin nola erlazionatzen diren eta beraien parte-hartzea nola izango den ulertzen lagunduko digu. Eta, batzuetan, ingurune batean edo bestean nola parte hartzen duten jakiteak harritu egingo gaitu.
4. Adostu zuzendaritzako organoekin ingurunearekin zer nolako erlazioa ezarri nahi dugun.
5. Egin proposamena erakundearen barruan erakundearen inguruan parte hartzeko. Eta aurkeztu auzoan, herrian...

Platera hobetzeko gomendioak:

- › Oso erabilgarria izango da inguruneak barrutik ezagutzea erakundeak nola funtzionatzen duen. Sentsibilizaziorako hitzaldiak eskain daitezke baliabidea dagoen auzo, kale edo herriko arazo zehatzen inguruan, edo "ate irekien" jardunaldia ere egin daiteke. Pentsatu zein izan daitekeen egokiagoa.
- › Interesgarria da inguruarekin erlazioa hasteko antolatzen ari diren jardueretan gure laguntza eskaintzea.

Jateko ordua da:
planifikatu zure
erakundeko parte
hartzearen inguruko
jardueren menua



Eskuliburuko errezeta guztiak egin badituzu,
ZORIONAK, zure erakundearen barruan parte
hartzeko jarduerak izango dituen menu ona
planifikatzeko unea da.

1. ERABAKIA: NORENTZAT EGIN NAHI DUGU SUKALDEAN?


Orain gure erakundearen barruan parte-hartzea zer den landu eta adostu ondoren, baita parte hartzeko eskaileran noraino iritsi nahi dugun zehaztu, noiz erabaki dezakegun:

FAMILIARENTZAT EGIN DEZAKEGU

Horri esaten diogu **"barneko parte-hartzea"**, hau da, erakundearen barruan egiten denari, eta erabiltzaileek haien gizarteratze-prozesuaren inguruko eta jasotzen ari diren zerbitzu zehatzen inguruko erabakiak hartzeko helburu argia du (zerbitzuak baloratzea, jardueren proposamenak, etab.). Gure parte-hartzearen eskaileran aukeratutako mailaren arabera, erabiltzaileak erakundearen erabaki-organoen parte izatea ere proposatu genezake. Baina, gogoratu, hori prozesu osoaren hasieran ezarriko dugu.

GURE INGURUA HARRITZEKO EGIN DEZAKEGU

Horri **"Kanpoko parte-hartzea"** esango genioke, hau da, gure erakundetik kanpo dauden parte-hartzeak dira eta xedea parte-hartze aktiboa gure inguru hurbileneko pertsoneri eramatea da (auzoan, herrian...). Kontuz ibili behar dugu, puntu honetan erabiltzaileek abian jartzen diren proposamen eta jardueretan hartu behar baitute parte, beraiei iritzia kontuan hartuz, baina betiere iritsi nahi den mailaren arabera eta manipulatutako gabe (kasu bakoitzean dauden mugak eta abantailak kontuan izan behar ditugu eta inplikaturako pertsona guztiak izan behar dira kontziente).




SUKALDEAN EGITEN, IZAN GOGOAN:

- › Erakunde eta elkarte sozialetan erabiltzailek parte hartzeko prozesua hasterako orduan, pertsonen gizarteratze eta autonomiarako berezko prozesuentzat erabilgarriak diren tresna gisa ulertu behar ditugu.
- › Erakunde eta elkarte sozialen barruan parte-hartzea sustatzeko prozesuei ekitea erakundearen barruan hasitako gogoeten emaitza izan behar da. Berezko erronkatzat hartu behar da, erakundearen ildo estrategikoa bihurtzeko.
- › Erakundeak berak erabaki behar du gogoeta prozesu horretan noraino eta nola garatuko dituen parte hartzeko prozesuak; betiere kontuan izanik erakundearen azken xedea zein den eta, hori gogoan izanda, prozesua parte hartzen duten pertsonak ez nahasteko eremuak sortuz.
- › Gure erakundean eta erabiltzaileei begira parte hartzeko prozesuak eta jarduerak egiten ditugun profesional gisa, gure lana izango da parte hartzeko moduak proposatu eta egokitzea, horiek aukeran izatea eta ezagutzea, baina pertsonak aukeratuko dute parte hartu ala ez. Eta erabaki hori parte-hartze prozesuaren baitan ulertu behar dugu.

Hala, PARTE HARTZEAREN GURE MENUA PRESTATZEN HAS GAITEZKE: jarduera zehatzen zerrenda egin eta ez ahaztu barneko (profesionalak, erabiltzaileak, oinarri soziala edo boluntarioak) edo kanpoko publikoa. Ez dugu inolaz ere ahaztu behar erakundearen erabaki-organoen zeregina eta prozesu osoan zehar izan duten inplikazioa.

**Ez ahaztu jarduera
guztietako beharrezko
baliabide ekonomikoak.**



Laguntzeko
erreferentzia eta
material batzuk

4



Eztabaida-foroa 2: Gizarteratzeko eta eraldaketa sozialerako parte-hartzea. Madril: EAPN ES, 2012

<https://www.eapn.es/publicaciones/180/foro-de-debate-2-participacion-para-la-inclusion-y-la-transformacion-social>

EAPN ES. Pobrezian eta gizarte-bazterkerian dauden pertsonen parte-hartze sozialaren gida metodologikoa. Madril.

<https://www.eapn.es/publicaciones/31/guia-metodologica-de-participacion-social-de-las-personas-en-situacion-de-pobreza-y-exclusion-social>

CARRASQUILLA CORRAL M.C eta CARNACEA CRUZ, M.A 0. Sortu, jolastu eta parte hartu. Parte hartzeko erreminten kutxa. Madril: EAPN ES, 2013

<https://www.participacionsocial.org/cajaHerramientas/index.php>

EAPN EUSKADI. Pertsonen parte-hartzea gizarteratzeko tresna gisa. Erakunde sozialetan parte-hartzea sustatzeko esperientzia pilotuak. EAPN Euskadiko Parte Hartze Taldea, 2010.

<https://www.eapneuskadi.org/include/uploads/nodo/Participacion-como-herramienta.pdf>

Hera Rodríguez, M.E. Zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen ahotsa Euskadiko politika sozialen diseinuan. EAPN Euskadiren esperientzia. Zerbitzuan, 64, 2017 .zk., 203-212. or.

http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/La_voz_personas_situacion_vulnerabilidad.pdf

FEANTSA. Participation Toolkit - "Get a different result...get people participating". Parte hartzeko tresnen eskuliburua. "Lortu beste emaitza bat... Lortu jendeak parte hartzea". 2013.

Gaztelaniaz eskuragarri:

https://www.feantsa.org/download/manual_de_herramientas_de_participacion-1631170708992428732.pdf

Pobrezia eta giza bazterketaren
aurkako europar sarea Euskadin

Red europea de lucha contra la pobreza
y la exclusión social en Euskadi

European anti poverty network
in the Basque Country



Finantzatzaileak

